



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Abenduaren 18an jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala

Bilbao Arenan izango da saioa, 17:00etan; **sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.**

Dena dago ia prest. Udazken luzearen ostean, zapatuan amaituko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Bilboko Bilbao Arena aretoan. Finalistak Aitor Bizkarra Ruiz, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Etxahun Lekue Etxebarria, Gorka Pagonabarraga Agorria, Jone Uria Albizuri, Nerea Ibarzabal Salegi, Onintza Enbeita Maguregi eta Xabat Gallettebeitia Abaroa dira. Finalaren atarian elkartu ditugu bertsolariak aretoan bertan, eta saiorako "gogotsu eta prest" daudela esan digute.

Lehenengo aldiz, txapel-jartzaile bi egongo dira aurtan. Joseba Etxebarria Uriarte eta Moises Enbeita Ealo izango dira txapeldunari txapela janzteko ardura izango dutenak. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, bakoitzak egindako ibilbidea eta, bereziki, txapelketaren Talde Antolatzaileari emandakoa eskertu gura izan die.

Zapatuko finalean Idoia Anzorandia Kareagak eta Itxaro Juaristi Olaetxeak egingo dituzte gai-jartzaile lanak, eta epaile lanetan, Ander Txakartegi Basterretxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joseba Santxo Uriarte, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Miriam Juaristi Urizar arituko dira. Idazkari beharrak Itziar Basterretxea Olarreagak egingo ditu.

Ohar bereziak

Egoera berezia denez, ohiko oharrei beste batzuk batu zaizkie. Antolakuntzaren oharrei kasu egitea eskatuko da, unean uneko neurriak errespetatuz.

Batetik, areto barruan musukoa jantzita izatea ezinbestekoa izango da. Bestetik, osasun neurriak zaintzeko, Bilbao Arenako ateak zabalduko dira tartean-tartean, aretoa aireztatu dadin.

Beraz, korridoreetan ere isiltasuna mantendu beharko da. Gainera, EAE-ko lehendakariaren abenduaren 14ko dekretuaren eraginez, aretora sartzeko ezinbestekoa izango da EB-ko COVID ziurtagiri digitala aurkeztea. Azkenik, areto barruan ezingo da ez jan ez edan, beraz, ezingo da areto barrura ezer sartu.

Sarrerak salgai

Finalerako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian eta, zapatuan bertan, 12:30etik aurrera, txarteldegia zabalik egongo da.

Bilbao Arenako ateak 15:30ean irekiko dira, eta antolakuntzak sasoi joateko gomendioa egin gura du, ilararik sor ez dadin.



Bilbao Arena kanpoan elkartu ditugu finalistak, finala baino egun batzuk lehenago. //XDZ



**SAIOA
ALKAIZA GUALLAR**
Iruña, 2021-XI-28
Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapeldunaren agurra

Doinua: Zimur-zimur egina da

Besarkada bat langile auzoetako aldera erdaldunen seme-alabok hor ikasi dugu euskera eta mundu bat da jaso duguna horrekin batera euskerak behar du ofiziala Lesakatik Cascantera eta orain musu handi bat iraultza den gorputzera ez-bitarra, queerra, transa, marika eta bollera (bis) mundua ederragoa da hurbilduz bazterrerera.

Abenduaren 27tik 30era izango da 2021eko Ahots Baten sormen egonaldia

Amaiurren batuko dira 15 eta 22 urte bitarteko gazteak, eta hainbat sortzaileekin egoteko aukera izango dute.

Urte guztian antzerkian, bertsolaritzan, kantagintzan eta kontalaritzan edota literaturan aritzen diren gazte sortzaileak batuko dira aurtien ere neguko oporraldian. Amaiurko aterpetxean elkartuko dira gazteak Ahots Baten sormen egonaldian, abenduaren 27tik 30era bitartean.

Bertsozale Elkartek eta Euskaltzaindiak antolatu dugu aurtien.

Aurreko urtean, pandemiaren eraginez egun banatako bi saio egin baziren ere, aurtengoan berriro ere lehengo forma hartuko du: lau eguneko egonaldia izango da. Tartean, kultur diziplina

ezberdinetan aditu diren gonbidatuak batuko dira taldera, eta iritziak partekatzeko, esperimintatzeko, hitz egiteko aukera izango dute euren artean.

Abenduaren 28an Ane Labaka bertsolaria eta Maialen Belarra gai-jartzailea izango dituzte bidelagun gazteek, baita Intza Alkain aktorea ere. Biharamunean, abenduaren 29an, Joseba Larretxe *Josevisky* komikigilea bertaratu da eta Miren Narbaiza *MICE* kantari eta musikagileak ere hartuko du parte egonaldian.

Plan ederra, dudarik gabe, neguko oporraldia goxatzeko.



Amaiurren egingo da aurtien Ahots Baten sormen egonaldia. //XDZ

GRAL eta ikerketa proiektuen sariak banatu ditugu

Agustin Mendizabalen eta Mainer Arregiren ikerketa proiektuek eta Ainhoa Ontsaloren eta Iker Narbonaren gradu amaierako lanek eskuratu dituzte sariak.



GRAL eta ikerketa sariak jaso dituztenak edo haien ordezkariak, sari-banaketa ekitaldian. //XDZ

Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboak Katedrak banatu dituzte aurtengo sariak. Guztira 13 lan eta proiektu jaso dira oraingoan, eta horietatik lau izan dira saridunak. Irabazleen izenak azaroaren 24an egin zen sari banaketa ekitaldian jakin genituen.

GRAL sariei dagokienez, Ainhoa Ontsaloren 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatu feministak: publikoa aztergai gradu amaierako lanak eskuratu du bat, eta Iker Narbona Beitiaren *Bertsolaritzaren irakaskuntza Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza arautuan: bilakaera eta proposamen didaktikoa* lanak bestea. 500 euroko sari bana lortu dute egindako lan bakoitzarengatik.

Ikerketa proiektuei dagokienez, sari bi banatu dira. Hasieran bakarra zen ematekoa, baina ikerketa proiektuen maila ikusita, bi esleitu dira aurtengoan. Bata Agustin Mendizabal Iturriaren *Xabier Leteren prosodia musikalaren alderdi batzuk proposamenarentzako* izan da, eta bestea, Mainer Arregi Markuletaren *Bollerak Bertsogintzan: diskurtsoak, praktikak eta eraldaketa sozialerako proposamenak* proiektuarentzat. Urtebeteko epea izango dute ikertzaileek 2.000 euroko sariarekin lana garatzeko.

Xan Alkhat: "Euskal Herri osoko bertsolarien ezagutza egitea da kronika honen xedea"

Urrian hasi zen emititzen Bertsoa.eus atarian Bertsolari Bertsozale podcasta. Xan Alkhat bertsolari eta kazetaria da proiektuaren arduraduna, eta, gaur gaurkoz, lan horretan oso pozik ari dela kontatu digu. Orain arteko atal guztiak daude entzungai Bertsoa.eus-en.

Ostiralero emititzen da Bertsolari Bertsozale podcasta. Zer nolako esperientzia izaten ari da?

Esperientzia polita da; niretzat, hasteko! Euskal Herri guziko bertsolarien ezagutza egiten ari naiz. Haiekin hitz egiten nuen lehen kroniketan, eta orain, grabaketak egiten ditugu. Haien oroitzapenak eta haien bizipenak partekatzen dizkigute, eta beti aberatsa da.

Nola egiten duzu lan?

Hastapenean elkarrizketak telefonoz egiten nituen, baina azken kroniketan bertsolariak zuzenki grabatzen dituzte erantzunak eta ni ahal bezain muntaketa ona egiten saiatzen naiz. Aipatzen dituzten doinuak, bertsolariak edo bertsoak kronikan integratzen nabil, eta, egia erran behar dut, Xenpelar Dokumentazio Zentroa sekulako iturri lagungarria dut horretarako.

Zeintzuk izan dira orain arteko elkarrizketatuak?

Orain arte 9 lagun elkarrizketatu ditut, eta abenduko oporrak aintzin 10 izango dira. Lehena Iratxe Ibarra izan zen, eta ondotik, hurrenez hurren, Mixel Aire Xalbador, Aroa Arrizubieta, Andoni Egaña, Leire Casamajou, Julen Zelaieta, Maddi Sarasua, Asier Alcedo eta Elixabet Etxandi.

Nola aukeratu dituzu protagonistak?

Euskal Herri osoko bertsolarien ezagutza egitea da kronika honen xedea, beren bertsozaletasuna izanez oinarria. Beraz, herrialde guzietako, genero eta adin guzietako jendeari hitza emaita dugu xede. Orduan, herrialde bateko bertsolari bat pentsatu, hari eskatu eta ados bada harekin egiten dugu. Bizkaian, adibidez, Iratxe Ibarra izan zen lehena, eta ondotik, Asier Alcedo izan zen. Adin ezberdinak, bizipen ezberdinak... hortan du egiten dugun honek interesa.

Zer eskaintzen du horrelako tarte batek?

Bertsolariak ezagutzeko aukera ederra. Noiz eta nola bertsozaletu ziren jakitea beti ederra da. Zoin dituzten doinu eta bertsolari gustukoenak edo nola dakusaten beraien herrialdeko bertsolaritza. Oso galdera sinpleak izan arren, hortan nuen interesa ikusten kronika hau abiatzean; hau da, nola islatzen den bakoitzaren bertsozaletasuna. Espero dut erantzuten diogula horri.

Gero eta gehiago ari da podcast formatua lantzen. Zer du berezia?

Podcast formatua nahi dena, nahi delarik eta nahi den lekuan entzuteko formatua da. Printzipioz, audio formatua da,

deskargatzen dena eta edozein tresnetan entzuten ahal dena, nahi denean.

Ondoko hilabeteetako erronka izanen da audio formatua garatzea, eta beraz, benetako podcast formatua, orain bideoan igotzen baita. Uste dut joratu behar den bidea dela, azken denboretan garatzen den eduki desberdinen kontsumo berria baita. Deskargatzen den soinua nahi denean entzutea gustuko dute ainitzek. Hortara joango girela ez dut dudatzen.

Gustura zaude proiektuarekin?

Bai, oso gustura. Plazer handia hartzen dut beti elkarrizketatuak entzutean, eta plazer handiagoa oraindik muntaketa egitean. Aipatzen dituzten bertsolarien, doinuen edo bertsoen audioak bilatzeak denbora asko eskatzen dit, baina maite dudana da. Nire bertsolaritza buruzko ezagutza handitzen da horiei esker, eta haiekin hori partekatzea luxu ikaragarria da. Baina nirea zerbait da, eskerrak bertsolariari eman behar dira, horiek gabe ezin baigintze kronika hau ondu. Orduan paradaz baliatuko naiz lerro hauetan elkarrizketatutako bertsolariak eskertzeko, bihotz-bihotzetik eta aurretik etorriko direnak ere bai!



Xan Alkhatek gidatzen du podcasten atala. //XDZ



Puntu jarrita

ANE ZUAZUBISKAR IÑARRA

Halako puntuari ezin zaio ederretik bakarrik erantzun, Eneko. Ea zortziko txikian mamiari heltzeko kapaz garen. "Oreka aurkitzea da kontua"; hori litzateke erantzun erraza, balekoa, txalo merkerako moduko erantzuna. "Forma eta eduki ederraren arteko oreka aurkitzea da kontua". Erraza da, eh? Baina ez nengoke ados nire buruarekin, eta gainera, karaktere asko bete behar ditut oraindik. Bertsoaz ari garenean, teknika lotzen dut nik edertasunarekin. Eta teknika lanarekin. Baina aldi berean, mamia eta edukia ere lotzen ditut lanarekin. Horregatik ditut estimutan mamian eta teknikan lana igartzen zaien belaunaldikideak, edo adin bueltakoak. (Gainerakoak ere bai, dena esaten hasita, baina iruditzen zait zerbait esan nahi duenak bere burua estutu behar duela testuinguruak hala eskatzen duenean). Batez ere, ondo egindako lanak arnasa ematen diolako mingainari, burua lainotuta dakargun egunetan.

Txapelketa betekoa udazkena joan zaigu, eta hortik etorri zaizkit pozik handienak. Pagonabarragaren "errituala" eta "gorritu ahala", eta Sanjurjoren eta Bizkarraren izarren hautsak, eta Alkaizaren gasolindegia, eta Etxebarriazarragaren "gaiei nondik kantatu nahi nien argi eduki nahi nuen", eta Roblesen "Nafarroa ez da Sakanan bukatzen" eta horren osteko argudio denak. Formatik eta mamitik bietatik dutelako zaizkit eder haien eta aipatu gabeko beste askoren lanak. Lana igartzen zaielako.

Adinez bueltakoak ditut denak, baina susmoa badut erdibideko belaunalditxoak osatzen dugula laurogeita hamapikukoak, eta gu baino gazteagoek zenbait kontutan ezberdin konfiguratuta dakartela burua. Bukaera biribil batek edozein zortziko handi salbatu zezakeela ikasi genuen guk eskolartekoetan (oh, bertsoaren azken millennialak!), baina urte gutxian ikasi genuen bukaera puztuak ez zirela aski. Eta gure atzetik, bi milakoak. Lurrunezko mundu bati bertsoan, hasieratik. Aiestaran, lau urteko saltoak horrenbestera balioko duelakoan, zeri kantatu nahi dio Zeta belaunaldiak? Zein dira bi milatik aurrerakoak gaiak? Zertan igartzen duzue, lau urte (edo gehiagoko) saltoa?

Koplak

Udaberrian egingo da Bertso Eguna

Bereziak izan dira 2021eko Bertso Egunak, bat beharrean, bi izan dira eta. Pandemiak eragindako egoerari erantzunez eta plaza biziberritzeko asmoz, hiru Bertso Egun antolatu genituen negurako eta udaberriko, baina bi egin ahal izan genituen azkenean. 2022rako ere Bertso Eguna egitea aurreikusita daukagu: udaberrian egingo da. Aurrerago jakinaraziko dira xehetasun gehiago.

Poto-Finixa



Harian, baina seguru

Galtzaundi Buskara Taldea

Urtarrilaren 8an egingo da Arabako Batzar Nagusia

Urte hasieran egingo dugu Arabako Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia. Batzarrean, gainera, 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketa ere aurkeztuko da. Izen-emate epea itxita dago, eta urtariletik aurrera ezagutuko ditugu abitzera doan txapelketaren inguruko xehetasun gehiago.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian